# ttipi-ttapa

1994ko irailak 22 • 142. zenbakia



Elkarrizketa
Begoña Alberro eta Arrosatxo Ibarra

XORROXIN IRRATIA:
# LIZENTZIA IZATEKO ESKUBIDE OSOA DUGU

Argazkia: Karmele TOLOSA




## MATRIKULAZIOA

**EUSKARA KLASEAK**

EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK
HERRIETAN ESKAINTZA BEREZIAK
EGA

**IZENA NON**

BAZTAN IKASTOLAN (parkean)
✆ 45 24 71

**EPEA**

IRAILAREN 30a

eta barnetegiak ere !

EUSKARAK MEREZI DU !
izena eman aek-n

HABLARAS EUSKARA!



herria ezagutuz, berba eginez, ongi pasatuz
solasean, harremanak eginez, mintzatuz...
BARNETEGIAK
CURSOS DE INVIERNO
LES CLASES d'HIVER
IKA
LESAKAN
☎ 948-627513 / 948-637796

**Bertakoak 'EXTERNO' moduan ere apuntatzen ahal dira**

DATUAK............

❖ *Begoña eta Arrosatxo 'Behinpin' taldeko ordezkariak dira.*

❖ *'Behinpin' taldea batez ere Malerrekako Jendez osatua bada ere, Bortziriak eta Baztanerako ere izanen den Familia Orientabide eta Sexu Heziketarako Zentrua Donezteben jartzea eskatzen dute.*

❖ *Momentuz, gisa honetako zerbitzu publikoaz baliatu nahi duenak Iruñeraino joan beharra dauka.*

❖ *Horregatik, gainerako nafartarren eskubide berdinak eskatuz, zerbitzua bertan esatea eskatzen dute.*

TESTUA:
JOXEMANUEL IRIGOIEN
ARGAZKIA:
KARMELE TOLOSA

# Begoña ALBERRO eta Arrosatxo IBARRA: «Bizimodua hobetzeko beharrezko zerbitzuak oraindik falta dira hemen»



**FAMILIA ORIENTABIDE ETA SEXU HEZIKETARAKO ZENTRUA (FOSHZ) ESKATZEN DUZUE ZONARAKO. ZERTAN DAGO EGOERA?**

Hilabetero biltzen gara eta uda aitzinetik prestatu genuen materiala orain ari gara banatzen (aldizkari honen barnean badago bat). Paper horretan nor garen, zer eta zertarako eskatzen dugun esplikatzen du. Honetaz gain, Osasunbideko gerentearekin bilera bat eskatua dugu.

**NORTZUK JOANEN ZARETE BILERA HORRETARA?**

'Behinpin'eko ordezkariekin batera joateko, zonako udal eta osasun kontseiluetako ordezkariei ere etortzeko gonbitea eman diegu.

**NOLA HARTU DUTE ESKARI HAU INGURUKO ERAKUNDEEK?**

Ongi dagoela ikusi dute eta zenbait udalek dirulaguntza ere eman digute informazio kanpaina bultzatzeko. Bertze batzuk ez digute erantzun garbirik eman. Dena dela, orain berriz egotekoak gara herriz herri gure asmoak agertzeko eta ea denok batera zerbitzu hau ekartzeko indarra egiten dugun.

**NORENDAKO DA ZERBITZUA?**

Denendako. Ez bakarrik emakumeendako, baita gizon eta gazteendako ere. Kontutan hartu zentru integrala izatea nahi dugula. Behar beharrezkoa da lehenbailehen zentrua hemen jartzea. Iruñean dauden zentruek ez dute inola ere dagoen eskaria betetzen. Agintariek badakite ikaragarrizko zerrendak daudela esperoan, eta hoiek, arratsaldean pribatuetara joatera behartuak daudela. Hori lotsagarria da.

**ZER BEHARKO ZEN ZERBITZUA HEMEN JARTZEKO?**

Gauza haundirik ez. Adibidez Doneztebeko Osasun Zentrua arratsaldez hutsik egoten da, goardian egoten den medikua eta erizaina bertzerik ez. Hortaz, gai honetarako espezialistak baino ez ziren beharko, bainan ez Iruñean, hemen. Noiz nahi ordua da guk ere bertze nafarrek dituzten eskubide berberak izateko.

**HEMENDIK AITZINERA ZEIN PAUSU EMAN BEHAR DITUZUE?**

Informazio kanpainarekin sartuko gara buru belarri; Osasun Kontseilua eta udaletakoekin solastu, txarlak eman eskoletan...

*«Behar beharrezkoa da lehenbailehen zentrua hemen jartzea. Zentru hau integrala izatea nahi dugu. Ez bakarrik emakumeendako, baita gizon eta gazteendako ere»*

***Baztango udala eta Xorroxin irratiaren artean sinatutako komenioak ez du lortu Nafarroako Gobernuaren oneritzirik. Izan ere, komenio horren bitartez, berez udalarena den emisio lizentzia hamar urtez Xorroxinen esku uztea onartua zuten bi aldeak, bainan gobernutik diotenez, udalak ez omen du legez hori egiteko ahalmenik.***




TESTUA
***JOXEMANUEL IRIGOIEN***
ARGAZKIAK
***ARTXIBOA***

# XORROXIN IRRATIA:
# PREMIAZKOA DUGU GEURE EMISIO LIZENTZIA LORTZEA




Duela lau urte, Nafarroako FM emisorendako lizentzia banaketa egin zenean , garai hartan euskaraz emititzen zuten bi irratiak (Euskalerria eta Xorroxin Irratiak) lizentziarik gabe utzi zituen Nafarroako Gobernuak. Geroztik, bi irrati hauen egoera legala 'normaldu gabe' dago. Xorroxin Irratiaren kasuan, berez irrati munizipalentzat gordea dagoen frekuentzian, 107.5 Mhztan, aritzea egokitu zaio bitarte honetan.

### BAZTANGO UDALA ETA XORROXINEN ARTEKO KOMENIOA

Orain, behin betiko lizentzia baimena lortzeko tramiteak egiterakoan, aurkeztu beharreko bertze paperekin batera, komenioaren kopia bat ere igorri diote Nafarroako Gobernuari, bainan honek ez du azkeneko hau onartu. Gobernuak argudiatzen duenez, *'udalak ezin du bigarren erakunde baten esku utzi bere lizentziaren gestioa'* komenioan zehazten ziren baldintzetan.

### KOMENIOAREN NONDIK NORAKOAK

Dokumentu horrek dioenaren arabera, udal-lizentzia gestionatzeko Patronatu bat sortzea pentsatua dago. Bere agintaritza organoa hamar ordezkariz osatua egonen litzateke; 5 Baztango udalaren aldetik eta bertze 5 Xorroxin Kultur Elkartearen aldetik. Patronatu honen esku egonen da, modu berean, irratiaren gestio ekonomikoa eta azkenik, irratiarendako egoitzaz eta bere mantenuaz Baztango Udala arduratuko da.

### UDALAK JARRERA POSITIBOA

Guzti hau ikusirik, Xorroxin Irratiko arduradunek Baztango Udala osatzen duten alderdi politiko guztiek agertu duten *'jarrera positiboa'* azpimarratu nahi dute berezi-



'IRRATI TTIKI'REN BITARTEZ, IRRATIAREN MUNDUA IKASTETXEETARA HURBILDU DUTE XORROXINEKOEK AZKEN URTEOTAN

## Fitxa Teknikoa

Frekuentzia: FM 107,5

PROGRAMAZIOA

••*Astelehenetik Ortziralera*

7,30-9,30 ***Goiz argi***

10-12 ***Elkarrekin lanean***

12-14 ***Herriz herri***

20-22 ***Karakola segi hola***

••*Larunbatetan*

13-14,30 ***Baztango Informazio Munizipala***

15-17,30 ***Nola doinu hala dantza***

••*Igandetan*

12-14 ***Dedikatoriak***

ki. Zentzu honetan, komenioaren afera dagoen bazala egonik, aterabide positibobat emateko egoten ahal diren aukera desberdinak aztertu nahian dabiltza Xorroxin irratiko arduradunak momentu hauetan. Oraindik ez dago, beraz, aterabide hori zein izanen den zehazterik.

### Nafarroako Gobernuak Plan Teknikoa errebisatzea eskatu dio Madridi

Nafarroako Gobernuak irailaren 5ean egindako Gobernu-bileran, Espainiako Irratidifusioko Plan Teknikoaren errebisioa eskatu dio gai honetaz arduratzen den Ministraritzari. Eskari horren arabera,Plan Tekniko horretan zeharkako gestioa izanen duten zortzi emisora berri sartzea da helburua, horietako bat Lesakan. Eta honetaz gainera, *'kultur elkarte, gazte elkarte eta holako kolektiboek bultzaturik dauden emisorentzat,legalizazio bide bat irekitzea'* ereeskatuko dio Nafarroako Gobernuak Madrideko Ministraritzari. Ikusi behar orain zertan gauzatzen den eskari hau eta euskal irratiei zer leku ematen zaien bertan. ■

### Zonako jendearentzat zabalik dagoen irrati partizipatiboa

Irrati partizipatiboaren formula ez da berria Xorroxin Irratian. Zentzu horretan erran daiteke fruitu emankorrak ere eman dituela jende eta kolektibo desberdinetara hurbiltzeko saiakerak.
Dena den, eguneroko programaziotik kanpo, bada bereziki aipatzea merezi duen esperientzia bat; «Irrati ttiki» izenekoa, alegia. Irrati ttikiren esperientzia duela 5 urte jarri zuten martxan, eta denbora honetan ikasturtero aste batez Baztan, Malerreka eta Bortzirietako hainbat ikastetxek parte hartu ohi du irratitailer ibiltaria den honetan. Xorroxineko arduradunek *'arras positibotzat'* jotzen dute orainarteko esperientzia. Baztanen adibidez, Arizkun izan ezik herri guztietan ibilia da, eta aurten nobedade gisa, Ultzama aldera ere joatekoak dira. Modu honetara, aste batez esperientzia honetan parte hartu nahi duen ikastetxeak badu bere irratsaioa egiterik, eta gainera, herrian bertan entzuteko moduan. Irratsaio hauen kalitatea hobetzeko, irakasleekin ikastarotxoa antolatzeko asmoa dute Xorroxinekoek.



**Joseba IGARABIDE**
Xorroxin Irratiko arduraduna

## «Geure lizentzia izateko eskubidea irabazia dugu»

■ ***Zein da momentu honetan irratiak duen premiarik larriena?***

❑ Dudarik gabe, premiarik haundiena behin eta betikoz lizentzia eskuratzea da. Kontutan hartu behar da, Nafarroan ez dagoela lizentzia duen euskarazko emisora bakar bat ere.

■ ***Nola baloratzen duzue Nafarroako Gobernuak gai honi buruz iraila hasieran hartu duen jarrera?***

❑ Balorazio positiboa eginen genuke, guzti honetaz irakurketa positibo bat eginen balu. Hau da, balorazio ona eginen genuke lizentzia hauek jada lanean ari garen irratioi zabalduko balizkigu eta baita, dioen bezala, kultur elkarte eta gazte munduaren inguruko kolektiboei ere.
Bide horretatik, interesgarria da irailaren 5eko Gobernubileran onartutako bidean sakontzea. Lan horretan gure laguntza osoa eskaintzen diogu Gobernuari.
Dena den, gure kasuan uste dugu lizentzia bat izateko eskubidea aspaldixkotik irabazia dugula.

tipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

EGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 5.850 ALE

RGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEKO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA.: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

zendaria: Joxemanuel Iri-
en. Publizitatea: Miren Kar-
le Tolosa. Erredakzioa: Ai-
Arozena, Joxemanuel Iri-
en. Erredakzio taldea: Pe-
Apezetxea, Juainas Paul,
stina Boan, Bittori Telletxea.
rriemaileak: Joseba Azpi-
, Esteban Arozena, Juana
ri Saizar, Ainhoa Mutuberria,
n Isasi, Txema Aldabe, Pello
egia, Txema Urroz, Patxi
andorena, Daniel Martirena,
bel Maia, Josune Etxebeste,
blo Mendiburu, Joseba Iga-
ide, Alizia Olaizola, Margari
enike, Koro Irazoki, Mixel
rendiain, Jacqueline, Marta
ria, Oskar Txoperena, Al-
to Sansiñena, Pello Apeze-
a, Aitor Arozena, Kristina
an. Kolaboratzaileak: EHNE
arroa, Patxi Lasa, Josetxo
sperregi.
rimategia: Gertu (Oñati).
i-ttapak ez du bere gain
tzen derrigorrez, aldizkarian
erazitako erranen eta eritzien
ntzukizunik
akunde Laguntzaileak:
a, Leitza, Goizueta, Areso,
tan, Urdazubi, Zugarramur-
eta Sarako udalak, Bor-
etako Euskara Mankomuni-
ea, Malerrekako Zerbitzu
nkomunitatea...

Aldizkari honek Nafarroako
obernuaren laguntza jaso du



GAURKOTASUNEKO GAIA

## Belateko obrak

### Proiektua egiterakoan ez ziren ohartu iturria hor zegoela



Florentino GOÑI
Oronozko alkatea

Almandoztik behiti egiten ari diren obraren zati bat gelditzea agindu genuen Oronoz-Mugairiko iturria hartzen zutelakoz. Teknikoak etorri ziren ikusterat eta orain, trazado berri bat eginen dute seguraski iturria errespetatuz.
Izan ere, bortzehun bizilagun eta enpresa haundi bat urarik gabe uztea gauza aski gauza larria baita. Iduri duenez, proiektua egin zutenean ez ziren ohartu hor iturri bat bazegoela eta horra orain...
Dena den desmonte haundiak egiten ari dituzte. Inguru hortan, eta gero ere, ebaki kozkorrak agerian gelditúko dira. Espero dezagun, gero arbolak paratzen hasten direnean, ez dituztela agian ere, pinuak paratuko. Haritza edo bertako arbol klaseren bat paratu beharko dute. Gero, Oronoztik Oieregi alderat eta Oronoztik Askape alderako proiektua oraindik egin gabe dago. Ez da batere erraxa izanen, bainan hori geroago ikusiko da.

### Berritzeak bai, bainan ahalik eta guttien kaltetuz ingurua



Marisol TABERNA
LAINOPE Ingurugiro T.

Ezin da ukatu Iruñea eta gure eskualdea lotzen duen bidea moldatzearen esperoan egondu garela aspaldiko urtetan. Berritzelanak beharrezkoak direla iduritzen zaigu, alegia.
Nolanahi ere, gisa honetako obrak burutzeko lurrari egiten zaizkion ebaki eta larrutuen ondorio latzak direla medio, kezka nagusitzen doaie gure baitan. Bixtan baitr dago inguru horretarako "inpakto medioambiental" izenez ezagutzen dena franko nabaria dela. Beranduegi izan baino lehen obra horien segimendua egiteko berez legeztatua dagoen komisioa behar bezala eratzeko deialdia luzatu nahi genuke hementxetik. Komisio horretan eskualde guziko Herriko-etxetako ordezkariak, ingurugiro teknikariak eta ingurugiro taldeak ordezkatuak egon behar lukete, euren eginkizun nagusia ingurua ahalik eta guttien kaltetzeko moduko neurriak hartzea izanen zelarik.

### Obran lan egiten duten enpresak bertakoak dira



Kiko GARTXITORENA
Obrako langilea

Beharrezkoa den obra bat ari da egiten, gainera hemengo jendea ere kontratatu dute eta inguru honetan lana sortzea ona da.
Hemengo herriei bizia emanen zaie, turismoa indartuko da, ostatu eta jatetxeek gora eginen dute, baina beste aldetik, komertzioek beherakada haundia izanen dute, jendeak, Iruñea hurbil gelditzean, hara joango bait da erosketak egitera. Iruñean lanean edo ikasten ari direnak, han pisu bat alokatu behar izaten dute, baina hau bukatzerakoan egunero joan etorria egin ahal izanen dute.
Herriko lurren truke, expropiazioen diruaz aparte, laguntza bat eman beharkozen herriari, pistak moldatzeko, asfaltatzeko.., Leitzaranen egin den bezala.
Oraingo errepideari begira, lehen bait lehen konpondu behar da Mugaire-Berroeta tramoa, lotsagarria dagoelako, eta gerora begira kaltetu dena moldatu eta zuhaitz landaketak egin.

LEGARRA
• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •
ZERBITZUAK
Fax Publikoa
Enkuadernazioak
Inprenta lanak • fotokopiak
%25eko
deskuentoa
diska, kasette eta liburuetan
Legarrea 9, © 637030 - LESAKA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK

ERRO
BIDAIAK
BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015
✘ HERRIAK
✘ MENDIAK
✘ TURISMOA
✘ TREKING eta
BIDAI
ALTERNATIBOAK
ADUANA KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUN

## BOTA BERTSOA



*Eskatu hiru desio Aladinoren lanparari*

**Itsaso ALEMAN**
Baztango Bertso Eskola
Doinua: Peñagarikanorena

*Aladinoren lanpararekin*
*desioen erresuma*
*edozein gauza eska dezaket*
*hau da erantzunkizuna*
*serio xamar pentsatzen jarri*
*gazteontzako astuna*
*topikoan erantzuna*
*bihotzaren oihartzuna (bis)*
*hainbat herrik nahi eta ezin lortu*
*abertzaleen maitasuna*
*denen ametsa egi bihurtu*
*emanez askatasuna (bis).*

*Nere hurrengo burutapena*
*anbiziorik txarrena*
*dena niretzat bildu nahi nuke*
*ahalik eta azkarrena*
*konturatu naiz ta sentitzen dut*
*zikina gorputz barrena*
*eman dut jada ordena*
*ez dut merezi azkena (bis)*
*hirugarrena zuentzat doa*
*eskatu nahi duzuena*
*erabil zuen fantasi hori*
*baina pentsatu aurrena (bis).*

## IRAKURLEAK MINTZO

### Ruper Ordorika

Bortzirietako Euskaltegiak Berako Kultur Batzordeari eskerrak eman nahi dizkio kontzertua antolatzen laguntzeagatik. Era berean, barkamena eskatu, hau behar bezala adierazten ez jakiteagatik.

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA
IKA

### 94-95 Sindikal hauteskundeak

Lantegi gehienetan 1990-ean izan ziren azken hauteskundeak eta aurten berriz egitekoak dira. Holakoetan izaten dira zenbait gora-behera eta Nafarroako LAB, ELA, CCOO eta UGT sindikatuek hauteskundeak ahalik eta garbien egitearren normatiba bat onartu dugu. Honen arabera, zenbait lantegietan aurten egin beharrean datorren urtean ere egin daitezke. Delegatuen hautaketa 6 langile edo gehiago dauden lantegietan eginen dira.

Zenbait enpresari eta langileren artean, irudi ezkor bat dago delegatu eta sindikatuekiko, hori aldatzea premiazkoa ikusten dugu. Sindikatu eta delegatuen betebeharrak hauek dira: lantegiaren iraupena eta zabaltzearen alde lan egitea eta langileriaren lan baldintzak errespetatzea.

Eskualde honetako etorkizunaz kezkatu eta arduraturik gaude, maiz adierazi dugun bezala, industria eta lehen sektoreko eraldaketa ezinbestekoak dira eskualdearen nortasunari eusteko. Kultur eginkizunetan ere sindikatuen parte hartzea beharrezkoa da, lan harremanetan euskararen presentzia eskasa bait da. Euskal Herriko errepresioa ezaguna dugu eta zenbait sindikatuk ihes egiten dute hau eztabaidatzerakoan, aitzakiz politika dela eta gaia lan mundutik kanpo dagoela erranez. Errepresio eragiten duten hariak, euskal kultura eta nortasuna deusezten saiatzen direnak, dekretu eta lan erreformak egiten dituztenak, interes berdina bilatzen dute: LANGILERIA menperatzea eta isilik edukitea. LABeko delegatu eta militanteok arazo desberdinei aurre egitekotan edozein kolektibo eta erakundeekin elkarlanean aritzeko prest gaude.

J. MITXELTORENA
LABEKO KOORDINATZAILEA
ENA: 72.658.554

### Lesakako EAJri:

Abuztuaren 13an, Cuencara zetozenean, nere andrea eta lagun batek istripua izan zuten Sorian. Oraingo honetan dena ikaraldian amaitu da, autoa desegina eta kolpe pila bat.

EAJri esker, gure senide eta lagunek, astero milaka kilometro egin behar dituzte gu ikusteko, beraz, ez da harritzekoa noizbehinka istripuren bat izatea. Harritzekoa dena, zera da: EAJ nazionalak, presoen sakabanatzea bultzatzen duen bitartean, Lesakan eta zenbait herritan horren kontra agertzen zarete. Betiko politikeria ustela, horrek ez du ezertarako balio, zuen alderdiaren politika hiltzailea aldatzen ez baduzue. Ez dugu horrelako laguntzarik nahi, itxura bertzerik ez baita.

Bitartean, etxekoak hortxe ibiliko dira Espainia zeharkatzen gurekin egoteko, baina ez ahantzi, bide bazterretan gelditu diren eta geldituko diren euskaldunen odolak, zuen eskuak zikintzen dituela. Zuen esku dago.

IÑAKI FAGOAGA YANCI
ENA: 72.666.954
EUSKAL PRESO POLITIKOA,
CUENCAN


**ARTEKARI TALDEA**
ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

**LESAKA:**
• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

**IRUÑEA:**
• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak



LESAKA

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK


Argia Astekaria 94-IX-18

*«Euskarak bide luzea egin behar du oraindik».*
**Genaro ZELAIETA**
Realeko futbolari ohia
Argia 94-IX-18

*«Ez dakit zergatik, baina pilotari guztiak euskaldunak gara».*
**Inaxio ERRANDONEA**
Pilotaria
Argia 94-IX-18

*«Duela bi urte 1.300 izokin zenbatu ziren Bidasoa ibaian, aurten 60 bat harrapatu dira».*
**Manuel MORALES**
Berako arrantza elkarteko lehendakaria
Argia 94-IX-18

## 11 GALDERA LABUR


**Pedro Jesus ALDABE**
Igantziarra

◆ **Soldaduxka bai ala ez?**
❖ Hilabete pare batekoa.
◆ **Egizia, bai ala ez?**
❖ Neune hizturia naiz.
◆ **Bertan ala kanpoan?**
❖ Zerbait egitekoan kanpora atera behar, hemen hizture aunitz eta egizi gutti.
◆ **Otordu bat egiteko, jatetxea ala sagardotegia?**
❖ Jatetxea.
◆ **Eta prestatzeko, sozidadean la lantokian?**
❖ Sozidadean gehiago disfrutatzen dut.
◆ **Jaki bat prestatzeko eta bertzea jateko?**
❖ Bakailua saltsa berdean prestatzeko eta rape almejan saltsan jateko.
◆ **Herrian zer eginen zenukeen lehendabizi, piszina ala frontoia?**
❖ Frontoia beharrezkoagoa da.
◆ **Zeren falta sumatzen duzu herria?**
❖ Aparkaleku gexiago behar litzateke.
◆ **Besta gauez ala egunez?**
❖ Herrian izanez gero bitan.
◆ **Azken urteotako programari begira, zer gehiago sartuko zenuke?**
❖ Betizuak gustatzen zaizkit, aurten iduri du badirela.
◆ **Oporrak pasatzeko leku bat?**
❖ Urrian Orbaizetan.


**SAROBE okindegia**
**SANDERS Pentsuak**
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - **BERA**

**ZIZKA OSTATUA**
**Martxa eta mozkor saltsa**
Altzate 28 - **BERA**

**MASAIA eta Bizkortze ariketak**
**TXOMIN IRAZOKI**
**(Fisioterapeuta)**
EGUN OSOAN
• Goizetan 9,30etatik aitzinera
• Arratsaldetan 2,30etatik aitzinera
Eztegara 24, Tfnoa: 63 13 91 - **BERA**

E D A R I A K
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

Bera

# Zaharretxe berriaren obrak, aurten bertan hasiko dira

## Oraingoaren gibelkaldean eginen den egoitza berriak 40 lagunendako kapazitatea izanen du

KRISTINA BOAN

Zaharretxearen azpiko solairuan termitak somatu zirenetik, egoerari aterabide bat bilatzen ibili dira Zaharretxea gestionatzen duen Patronatua, Berako Udala eta Nafarroako Gobernuko Ongizate Sozialeko Departamentua. Zentzu horretan, joan den apirilaren azken egunetan sinatu zen hiru erakunde hauen arteko akordioa. Horren arabera, Nafarroako Gobernuak finantziatuko du zatirik haundiena, 151,3 milioi pezeta, gainerakoa udala eta Patronatuaren esku utziz.

Iturri ofizialetatik jakinerazi dutenez, egoitza berriaren obrak aurten hasiko dira eta 1996an akautu. Honek 40 lagunendako kapazitatea izanen du. Bitarte honetan, orain dauden tokian segituko dute gaur egun bizi diren 20 adintuak.



Berako Zaharretxean 20 adintu bizi dira gaur egun — Artxiboa

## Bortz musika talde osatuak eta seigarren bat bidean

Beran musikak badu etorkizunik. Dagoeneko 5 musika talde gazte daude izen eta guzi kontzertuak eskaini dituztenak. Seigarren bat ere bada, oraindik kontzerturik egin ez duena eta izenik ere ez daukana.

Zup eta Noise Hole dira zaharrenak eta esperientzia gehien dutenak. Bi talde hauek Beran eta inguruan jotzen arituak dira. Euskara eta inglesez kantatzen dute. Gaztetxoagoak dira Gutariko Bat, Borrokan eta (?)-koak. Hauek ere euskaraz aritzen dira. Oraindik proiektua den seigarren talde hori ere, edozein egunetan argitara aterako da.



### ttipi-flash

**Emakume Elkarteak** helduentzat euskal dantza (zortzikoa) ikastaroak antolatu ditu. Klaseak astero emanen dira Ricardo Baroja eskolan. Lehen eguna, urriaren 5a izanen da arratsaldeko 7etan.

**Administrari lanposturako deialdia**
Baleri Irazoki 42 urte udalean administrari gisa lan egin ondotik, joan den abuztuan jubilatu da. Hori dela eta, administrari lanposturako deialdia irekiko da. Funtzionari errejimenean arituko da langile hori.



© 631076 • BERA

BOTXO ostatua
Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63


ANSONEA JATETXEA
Kontsultatu menu bereziak
Foruen Plaza 1, Tfnoa: 630 072 • BERA

Lesaka

# Euskal Jaiak Bortzirietako dantza taldeak bildu zituen

## Tantirumairu dantza taldeak antolatutako ekitaldian 120 bat dantzarik parte hartu zuten egun osoan

AITOR AROZENA

Tantirumairu dantza taldeak antolatutako Euskal Jaia irailaren 11n ospatu zen. Bertan, Bortzirietako 6 dantza taldeek (Lesakako Irain eta Tantirumairu, Berako Gure Txokoa eta Igantzi, Arantza eta Etxalarkoa) eta 120 dantzari ttiki inguruk parte hartu zuten, musikariekin batera. Eguraldi ederrak lagunduta, karrikaz karrika dantzari aritu ziren taldeak. Eguerdian, Estitxu Arozena eta Estitxu Fernandez bertsolarien ongietorriaren ondotik, plazan eskeini zuten dantza saioa. Etxeetan ederki bazkalduta, arratsaldean haurrek jostatzeko aukera izan zuten. Azkenik, Tantirumairu txaranga ere jotafuego aritu zen herria animatuz.

Egun guztian gainera, dantza arropen erakusketa zabalik egon zen Herriko Etxeko ganbaran.





### ttipi-flash

**Bortzirietako** Euskaltegian izena emateko epea hilaren 26an bukatuko da. Maila guztietan apuntatu daiteke 637796 edo 631105 (6etatik 8etara) telefonoetan.

**Istripu larria** gertatu zen irailaren 11an Gardelkobagoeta inguruan. Agiñarako moto igoera ikustera motoan zetozen bi irundar Javier Igoa lesakarraren kotxea joeta zauri larriekin ospitalera eraman zituzten. Igoak ez du ondoriorik baina kotxea txikitua gelditu da.

**Lesakako** I. Xake edo Ajedrez Irekia Pablo Glavina xakelari argentinarrak irabazi zuen. Beti Gazte elkarteak antolatutako ekitaldi honek maila haundiko partehartzea izan zuen.

ARRANO OSTATUA
Legarrea – LESAKA

XATURETXEA JATETXEA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

LORA DENDA TXIRULA
Bitiria LESAKA
☎ 627542
bitxikeriak • opariak • eskulangintza

EROSLE
LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria 67 – Tfnoa:637264

JOSEMA RAMOS
*Zolak akutxilatu eta barnizatzen dittut*
✆ 631342 BERA • ✆ 637172 LESAKA

Etxalar

# Santakruz ermitan ohitura bete zen

## Lan eguna izan arren, jende multxoa bildu zen ermitan egin zen mezara

PELLO ETA ALBERTO

Santakrutz egunak, nahiz eta lan eguna izan, jende multxoa bildu zuen ermitan egin zen mezan. Gauzak urteekin aldatzen joaten dira, eta lehen egiten zen besta gaur ez ikusiagatik, ohiturari kontu nahia erakutsi dute Urritzokietakoek. Izan ere, bertze urtetan ez bezala, mezatik aterata hamaiketako goxoa eskeini baitiote bertaratutako jendeari arbolapean.



**Urritzokietakoek aurten eman duten hamaiketakoa ere ohitura bihurtuko ahal da, ba.**

### Landagain Eskolan lau ikasle gehiago

Kopurua toki guzietan ttikitzen ari denean, eskolako haurrak gehiago direla ikustea harritzekoa da. Bertzalde, eskolaurreko haurrek irakasle berria dute ikasturte honetarako, Erratzuko Xabier.

**Junkal lanik gabe**

Ikastolan eta eskolan urtetan aritu ondoren, lanposturik gabe utzi dute. Ikastola itxi eta haurrak eskolara pasatu zirenean, agindu eta solas polit aunitz entzun zen. Gaur, bertze 12 irakaslerekin batera, etxean gelditu behar izan du. Gobernuak emandako hitza jan egin baitu.

*ttipi-flash*

**Postuen enkantea**

Buruilaren 10ean egin zen. Postu guzien ateerako balioa 1,9 milioikoa bazen ere, azkenean diru kopuru hori iaia bikoiztu egin zen, 3.5 milioira ailegatzeraino. Igoera nabarmenena hamargarren postuak egin zuen, hasieran 128 mila pezeta balio zuena 608 mila pezetan saldu baitzen ondarrean. Bera izan zen, hain zuzen ere, posturik garestiena.

**Auto zaharrak**

Abuztuaren 19an denbora bateko autoak ikusteko aukera izan genuen. Arratsaldean hogei bat kotxe ailegatu ziren, eta ordu erdi inguru plazan egon ondoren, Lizaietarako bidean barrena alde egin zuten. Bilboko auto zaharren rallykoak ziren.

IRUBIDE
OSTATUA
ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

ZALAIN JATETXEA
Eguneko menua eta karta
Boda eta banketeak ematen dira
Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

HERRIKO
OSTATUA
ETXALAR
JATETXEA
© 635290 • ETXALAR

HARITZPE
JATETXEA
KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK
Sukaldaritzarik hoberena xokorik politenean
Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038
• ETXALAR (NAFARROA) •

Igantzi

# Artzai Zakur lehiaketarekin emanen zaio hasiera bestetako programari

## Eguraldia ederrak lagunduta, 128 txirrindulari izan ziren Igantziko IV. Mendi Bizikleta Ibilaldian



**Bestetako, jo ta ke ari dira entsaiatzen herriko dantzariak**




**Santi Iturbide izan zen lehena helmugara ailegatzen**

*ttipi-flash*

**Euskara ikastaroak**
IKAk ikastaro berriaren izen ematea zabaldu du. Interesatuak deitu 637796 telefonora.

**Zikiro Jatea**
Zikiro Jateko txartelak salgai daude 25a bitartean herriko dendetan, 2.700 pezetatan

OSKAR TXOPERENA

Igande honetan bestei nasiera emanen zaiela erraten ahal da. Urteak dira, artzai zakur lehiaketa besta aitzineko igandean egiten dela. Izen guziak aipatzea luzeegi joanen litzaigukenez, partaidetza urtero bezain ona izanen dela erranen dugu. Agian ere, aitzineko bi urtetan baino gehiago lagunduko al du eguraldiak!. Badakizuzue, bada, igande honetan, irailak 23 arratsaldeko 4,30etan Meakaundiko zelaian duzue prueba.

Bikain atera zen, bertzalde, Igantziko IV. Mendi Bizikleta Ibilaldia. Eguraldi ederra argitu zuen eta beharbada horrek izan zuen eragina txirrindulari kopurua hain altua izateko: 128 guztira. 9,5 kmko ibilbide gogorra zen bete beharra, behin haur eta neskak, eta bitan gizonezko gazte eta helduak. Goi mailako hainbat kanpotarrek parte hartu eta gazte mailakoa izan arren, bertako Santi Iturbidek irabazi zuen azkenean, proba borobila eginez. Bertze gisako jarrera erakutsi zuten igantziko Mendi Bizikleta Taldeko partaide gehienek, urtean behin herrian egiten den ekitaldi honetan ez ateratzea erabaki baitzuten. Boikotaren zurrumurruak zabaldu ziren egun horren inguruan, bainan zerbait argitzeko eskatu genienean, azalpe-

BI - BIDE
Ostatu - Janaridenda
BESTA ALAITSUAK
OPA DIZKIZUEGU
Tfnoa: 63 72 78
IGANTZI

ATM S.A.
· Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.
· Enbalaketa elementuak eta flejeak.
· Garraio zintak eta mahaiak.
· Mantenu rodilloak.
Igantziko Bentak • © 63 74 11

TXOPERENA
Lantegiak
Nekazal makineriaren salmenta eta konponketa
VALPADANA
JOHN DEERE
• Traktoreak •
• Segagailuak •
• Eraistailuak •
• Motozerrak •
• Desbrozadorak •
Tel. 63 79 95 • IGANTZI



Argazkia TELLETXEAk utzia

nik ez ematea erabakia zutela erran ziguten. Errespetagarria da baina ez du iduri gauzak zuzentzeko modurik egokiena.

**«Garai batean, Lesakako Banda etortzen zen. Musikeroak oinez etortzen ziren eta Gartxipitik behiti ikustean, beren tresna eta guzi, jendea harrotu egiten zen… bestak hasten zirela eta hasten zirela!!» (Carmen Etxeberria)**

JATETXEA
LA VILLA
Besta zoriontsuak opa dizkizuegu
Tfnoa: 63 72 90
IGANTZI

SEBERIANO TXOPERENA
Oilasko eta oilanda salmenta
Tfnoa: 637784 • IGANTZI

CONSTRUCCIONES MECANICAS BERRIZAUN S.L.
Eraikuntza eta moldaketak
Despiezea eta makinaria
Mekanika mantenimendua
Igantziko Bentak • © 627572 • Faxa 637313

ttipi-ttapa
5.850 harpidedun
20.000 irakurle

Kaixo, Emakume eta Gazte
Lulu
• Gaur eguneko arropa gaur eguneko jendearentzat
• Neurri guztiak
Renteria 4, S. Miguel • IRUN (616165)


OSKAR

Igantziko bestetan,herrikideen alaitasunarekin bat egiten dugu

## Besta Zoriontsuak!

CAN
NAFARROAKO AURREZKI KUTXA


OSKAR



## Igantziko Udalak besta onak opa dizkizue Igantziar eta bisitari guziei

Arantza

# Aurten bi irakasle berri herriko eskolan

## Nesken arteko Herriz Herri Txapelketan, bertzalde, Arantzako taldeak eskuratu du bigarren postua

GARBIÑE ETA ELIXABET

Bi irakasle berri etorri dira aurten Arantzako eskolara.

Emma Sanzberro etxalartarra, irakasle laguntzaile bezala arituko da, Arantzan egun erdian eta Igantzi bertze erdia.

Bertzalde, Salvador Madariaga solfeo irakaslearen lekua, aurten, Marta Orube lesakarrak beteko du, eta Arantzan ez ezik, Bortzirietako eskola guzietan ere emanen ditu solfeo klaseak.

Hala ere, Salvadorrek Arantzan segituko du, arratsaldetan klase partikularrak ematen.

Hilabete honen 26tik aitzinera, klaseak goizez eta arratsaldez emanen dira.



**Euskal Jaia zela eta, herriko dantzari gaztetxoenak, bertze herrietakoekin batera, Lesakan dantzatu zuten irailaren 11n** Karmele

### Herrikoak 'Cafes Baque' txapelketan

Ander, Rafa eta Jon herriko pilotari gazteak Gipuzkoako 'Cafes Baque' txapelketan parte hartuko dute. Rafa eta Jon jubenil mailan arituko dira eta Ander, kadete mailan. Joan den asteartean Jonek lehen partidua jokatu zuen 18-13 irabaziz.

*ttipi-flash*

**Herri Kirolak**
Irailaren 10ean Larraintzarren jokatu zen nesken arteko Herriz Herri txapelketa, eta Arantzako taldeak lortu zuen bigarren postua. Lehenbizikoa Basaburuarentzat izan zen eta hirugarrena berriz, Lakuntzako taldearentzat.

**Ehiztariak bideak moldatzen**
Urriroa iristen ari da eta horrekin batera ehizarako garaia. Bertako ehiztariak Ekaitza eta Bagatxarreko bideetan masa bota dute bideak hobetzeko.


ttipi-ttapa

5.850 harpidedun
20.000 irakurle



ATERPE
jatetxea
Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

BEKO ERROTA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

ALKARTETXEA
JATETXEA
HARAGI ETA ARRAINETAN
ESPEZIALIZATUA
*Erreserbak egiteko deitu 627637 ©ra*
Antoiu 26 • **LESAKA**

IÑAKI ITURRIA
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
Instalazio zaharren berritzeak
PORTERO AUTOMATIKOAK
**Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe**

Jauregieta 12
© 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
© (943) 61 24 24
20300 IRUN

Sunbilla

# Herriko igerilekua irailaren 10ean inauguratu zen ofizialki

## Igande honetan, bertzalde, sekulako bertso jaialdia izanen da pilotalekuan

JOSUNE ETA IXABEL

Ricardo de Leon, Ongizate Sozialeko Konseilaria eta Jose Luis Diez Kirol Saileko Zuzendaria etorri ziren igerilekuareninaugurazio ofiziala egitera.

Inauguratu aitzinetik herria zeharkatu zuten herriko alkate zinegotzi eta Juanito Mariezkurrena kontratistarekin. Ondotik, holako kasoetan jartzen den zinta moztu eta han, igerilekuan bertan, berendua dastatzeko aukera izan zuten. Egia errateko, lasai ederrean egon ziren solas eta solas. Dena den, gonbidatutako afarira ez ziren gelditu Iruñetik etorritakoak, bertze zereginik bazutela eta.



Petxenekobordako 'Lizun' gaztandegikoek Idiazabak Jatorrizko

### Bertsolariak

Irailaren 25ean, arratsaldeko 7,30etan pilotalekuan izanen da bertso jaialdi ederra izanen dugu, Doneztebeko Euskaltegiak antolatuta.

### Rezola Margolariari omenaldi

bat egin zion Ulibeltza Elkarteak, abuztuaren 27an. Rakel Urtxegi sekretaria den hitzetan *"Sunbillako herria kanpoan erakustera eman bait du bere kuadroen bitartez".*

Afari bat egin zen, ondotik agurra dantzatu zioten eta trikitixa ere izan zen giroa alaitzen.

### ttipi-flash

- **66.876** pezetako dirulaguntza emn dio udalak Xorroxin irratiari.
- **Herriko Bazkaria** Badirudi aurten errepikatuko dela Karrika Nagusiko Baz karia, nahiz eta data zehaztu gabe egon urriaren 9an edo 12an izanen da seguruenik.
- **Mendi bizikleta** Irailaren 25an, III-Mendi Bizikleta Ibilaldia izanen da. Urtero bezala, parte hartu nahi duenak, egun berean izena Ulibeltzak Elkartean, 10,30rako eman beharko du.




URTARO BERRIEN ARROPAK
Parrokia 9 • ✆ 450883 - DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 DONEZTEBE


TELLETXEA MOBLEAK
Moble erakusketa haundia
❒ Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
❒ Haritz, gereziondo, gaztainondo eta pinuzkoak.
❒ Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin.
*Koltxoia aldatzeko aukera berezia aprobetxa ezazu.*
*1. kalitateko koltxoiak oso prezio interesgarrietan*
Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Doneztebe

# Merkataritza mundua euskalduntzeko kanpainari eman zaio hasiera

## Urriaren zortzia bitarte komertzio etaestablezimendu guztiak bisitatuko dituzte egitasmoaren berri emateko

TXEMA ETA KARMELO

Malerrekako Mankomunitateak aste honetan eman dio hasiera merkataritza mundua euskalduntzeko egitasmoari. Hiru helburu lortu nahi dira. Batetik, euskararen presentzia haunditzea merkataritza munduan. Bigarrenik, langileen euskara maila hobetzea, eta azkenik, barne eta kanpo harremanak euskaraz eginen dituen establezimendu sarea sortzea.

Bisitak bi fasetan eginen dira. Lehenik, egitasmoaren berri emanen da, dauden beharrak eta oztopoak identifikatuz. Bigarrenean, eskaintza zehatzen proposamena eta konpromezuen onarpena eginen da. Bildutako datuekin, komertzio bakoitzarentzat egokiak diren proposamenak aurkeztuko dira, eta konformidadea izanez geo, konpromezu zehatzak hitzarmen batean bilduko dira

Dena den, Mankomunidadeak laguntza ere eskainiko die dendariei, bertzeak bertze, itzulpenak egiteko eta euskarazko klaseetan.



Paula Kasares, Malerrekako Euskara Zerbitzuko teknikaria.



Mugitu da bai uda honetan doneztebar franko bizikletaz hor barrena. Hamar lagun hauek Santiagon egon dira Santio bidea eginez. Bertze seik, Holanda aukeratu zuten.

*ttipi-flash*

**Eskola beranduago** hasi da ikastetxearen kanpo aldean egiten ari diren obrengatik. Hemendik aitzinera, bertan ikasiko da 16 urteak arte.

**Zuzenketa** Duela 2 ale agertzen genuen Norfress-ek udalarekin zuen zorra barkatu zitzaiola. Udalak dioenez, zor duena orain ez bada gero ordaindu beharko du udalak.

**Multak gaizki aparkatzeagatik** Udala isunak edo multak jartzen hasia da herriko karriketan autoak gaizki aparkatzeagatik.

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

QSS FOTOS EN 1 HORA
ZURE ARGAZKIAK ORDU BATEAN EGITEN DITUGU
EZKONTZETAKO ERREPORTAIAK
IA 100 URTE KALITATEA ETA PROFESIONALTASUNA ESKEINIZ
FOTO MENA
ELIZONDO Tel. 58 01 55
DONEZTEBE Tel. Fax. 45 08 25

FUNERARIA ZERBITZUAK
DONEZTEBEn
MALDAERREKA, S. L.
Egunaren 24 ORDUTAN
zure esku gaituzu.
ZERBITZU GUZIAK EGITEN DIRA
Tfnoa: 637404



AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
Tf: 450028 - DONEZTEBE

Malerreka

# Oitzko bestetan jokatu ziren Laxoa finalak jendetsuak gertatu ziren

## Gazteetan Doneztebek irabazi zuen eta Kopa Finala Oitzek

TTIPI-TTAPA

Oiztko bestetan plaza jendez bete zen Laxoa finalak ikusteko. Gazteetan, Doneztebe A taldeak 9 jokoz eta seiz irabazi zion Iruritakoari. Txapeldunek 4 eta 0a lortu zuten, baina iruritarrek berdindu egin zuten. Halere, doneztebarrek aitzinetik segitu zuten bukaera arte: 6-4, 6-5, 8-5 eta azkenean 9-6.

Doneztebeko taldean J. Etxeberria, JM Iribarren, Jokin Apezetxea eta Carlos Etxeberriak jokatu zuten. Iruritakoan Iñaki Zabaleta, Jesus Etxenike, Guillermo Etxenike eta Joseba Ripa.

Kopa finalari dagokionez, Oitz A, gertatu zen garaile Irurita A 9-7 irabaziz 2,15 ordu iraun zuen partiduan. Emozioz betetako partidua izan zen eta joku onekoa gainera. Oitzko taldea Ziganda, Zelaieta, San Miguel eta Mindegiak osatzen zuten. Iruritakoa berriz, Bertiz, Elizaintzin, Alfredo eta Jaime Garatek. Bi final hauetan Pilota Federazio esberdinetako hainbertze ordezkari egon ziren (argazkikoak). Aipagarriena Kubako presidentea.



**Ezkerretik eskuinera Salanueva (Nafarroako Lehendakaria), Marrero (Kubako lehendakaria), Israel Garcia (Kubako entrenadorea), Baldo, Quesada jokalaria eta Iraundegi (Nazioarteko Pilota Federaziokoa). Guztiak Oitzen egon ziren.**

### ttipi-flash

- **Santa Leokadiako** bestak izan ziren irailaren 3 eta 4ean. Giro polita izan zen aizkora apostuan eta bazkarian.
- **Zubietan** Euskararen eguna ospatuko dute irailaren 24ean bertsolari, aizkolari, trikitixa eta afariarekin. Herriko Ostatua, bestalde, udalarekin akordiorik izan ez dutenez, hilabete honetan itxiko dute
- **Trasmisio kanpaina** hasi da Malerrekan. Eskolaratu diren haurrei zuzendua dago.





IRUNGO errepidea - 31780 BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

| | |
|---|---|
| Antzinaldeak | Tximiniak |
| Angeluak | Erlaizak |
| Orma antzinak | Moldurak |
| Leihoak | Zokaloak |
| Ateak | Hilarriak |
| Arkuak | Marrazkiak |
| Pilareak | |

'Abujardadoa' Mazizoa
Zahar antzekoa Txapeatua

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK

BELARRA Kafetegia

*Plater konbinatuak*

Ameztia 3, Tf. 45 03 06 • **DONEZTEBE**

- Jardinak apaintzeko landareak
- Barneko planta extranjerotik ekarria
- Marokkoko artisau lanak
- Koroiak
- Ezkontzarako apaingarriak

ESTHER

LOREDENDA • GARDEN CENTER

**MERKEALDIAK jardinetako osagarrietan**

Aritzondo (Bergara Auzoan) • Tfnoa: 580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 592200 • **NARBARTE**

**BADUZU DENBORA LIBRERIK**

***Ikasi eta ongi pasa ezazu ikasturte honetarako prestatu dugun aktibitate hauetako batekin:***

**PINTURA ZURA GAINEAN**
Moble eta zurezko tresna zahar eta berrien dekorazioa
**HAUR ETA HELDUENTZAT PINTURA IKASTAROA**
**LORE IDORREKIN KOADROAK EGITEKO IKASTAROA**
Aplikazio desberdinak (Kajak...)
**ESKULANAK**
Estañoa, Tela pintatuak, larrua...
**PLANTXA IKASTAROA**
Era guzietako arropak
**JOSTUNGINTZA**
Gantxiloa, bordatuak...
**BOLILLO ENKAJEAK**

**Plaza Mugatuak**
**Juncal 22 IRUN**
**✆ 943 - 61 46 88**

Ituren

# Joaldunen Eguna larunbat honetan ospatuko da Iturenen

## Goizeko ibilaldia, bertsolariak, herri bazkaria eta aizkora apostu ederra izanen dira, bertzeak bertze, egitarauaren barnean

IBAN ISASI

Larunbat honetan, irailak 24, aurtengo Joaldunen Eguna ospatuko da. Goizeko 11etan hasiko dira ekitaldiak, joaldun eta herriko trikitilarien ibilaldiarekin. Ondoren, Xabier Amuriza eta Jon Sarasua bertsolariak arituko dira. Arratsaldeko 3etan herri bazkaria izanen da bertsolari eta trikitilariekin. Bazkarira joan nahi dutenek kontutan hartu behar dute, irailaren 22a (ortzeguna) baino lehen hartu beharko dituztela txartelak.

Arratsaldeko 6etan aizkora apostu bikaina izanen da ikusgai. Mikel Mindegia, Angel Arrospide, Jose Mª Olasagasti eta Patxi Larretxea arituko dira lanean eta beraien eginbeharra 8 kanaerdiko —54 pulgada— enbor moztea izanen da (bat zutik eta bertze zazpiak etzanda).



Goizean ibilaldia eginen dute joaldunek

Joaldunen Eguna akitzeko, arratsaldez eta gauez dantzaldia izanen da Errekalde Anaiak taldearekin.

### Itxialdia presoen alde

Euskal Presoak burutzen ari diren gose grebaren aurrean elkartasuna adierazteko, Iturenen irailaren 23an, ortzirala, arratsaldeko 3etan hasi eta hogeita lau orduko itxialdia burutuko da, inguruko Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta. Oizko bestetan eta gai honen inguruan, komunikatu bat irakurri zuten gestoren ordezkariek. Bertan, presoen egoerari buruz, komunikabideetan agertzen denaz eta gartzeletan bizi duten egoera larria gogoratu zuten. Azkenik, inguruan burutuko diren ekitaldietan parte hartzera deitu zuten.

### Iturengo piszifaktoria

Hilabete hasierako gobernu-bileran, Nafarroako Gobernuak zeharkako kontratazioaren bitartez Iturengo Piszifaktoria erostea erabaki du. Horretarako, 47 milioi pezetako gastua egitea onartu du. Dirudienez, Iturengoak Oronozkoa ordezkatuko du, azken hau Belateko obrak ukitzen baitu.


**BERTSO JAIALDIA SUNBILLAN**

• Jon SARASUA •
• Angel Mari PEÑAGARIKANO •
• Iñaki MURUA •
• Jokin SOROZABAL •
• Mikel MENDIZABAL •
• Bittor ELIZAGOIEN •

Gai-jartzailea: Patxi LARRETXEA

*Noiz:* *Irailaren 25ean, arratsaldeko 7,30etan*
*Non:* *Sunbillako frontoian*
*Sarrera:* *700 pezeta*

*Antolatzailea:* *Malerrekako Euskaltegia*

ika

**ARIN**
ZERBITZUAK
*Klase guztietako aseguroak*
*Gestoria eta Bidaiak*
Parrokia 5 • Tfnoa: 450266 • DONEZTEBE

BAZTAN BIDASOALDEA

LANGILE ABERTZALEEN BATZORDEAK

LAB

Errotazar 5, behea
31780 BERA

Tfnoa: 63 06 70
Faxa: 63 06 70

LANGILERIAREN INDARRA!!

Goizueta

# Ehiztarien elkarteak garrantziazko erabakiak hartu ditu

## Arano eta Goizueta koto berean egonen dira, eta kotorik ordaintzen ez duenarekin neurri gogorrak hartuko dira

ESTEBAN AROZENA

Herriko ehiztarien elkarteak egin berriak dituen bi bilerak oso jendetsuak ez badira izan ere, sakoneko aldaketak eztabaidatu eta onartu dira bertan, denboraldi berriaren aurrean eragina izanen dutenak dudarik gabe.

Lehen lehenik esan Arano eta Goizueta koto batean bildu direla ofizialki behintzat. Hala ere, bakoitzak bere estatutuak eta mugak errespetatuko omen ditu.

Bestalde, elkarteko bazkide batzuk kotorik ordaintzen ez dutelako neurri gogorrak hartu beharrean aurkitu da aurten ehiztarien asanblada. Esate baterako, uso puestoan dagoenak txartela berekin ez baldin badauka ez du ehizatzeko inolako eskubiderik izango. Modu berean, bi urtetan txartela jasotzen ez duenari kototik baja emanen zaio, eta berriz sartu nahi izanez gero zor utzitako urteak ordaindu beharko ditu bere errekargu eta guzi.



Koipu hau Goizuetako kanale batean agertu da

Argazkia: Xabier Mikel

**Takolo, Pirrutx eta Porrotx** pailasoak herrian izanen ditugu hurrengo larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera.

*ttipi-flash*

- **Euskaltegiak** matrikulazio kanpainari hasiera eman dio. Alfabetatzen edo EGA ikastaroetan interesatuek izena eman dezakete udaletxean hil honen bukaera arte.
- **Pandero klaseak** Eli Salaberria pandero joleak musika tresna hau jotzen ikasi nahi dutenentzat ikastaroa martxan jarriko du hurrengo hiletik aurrera. Klaseak ostiralero emanen dira arratsaldeko 7etatik 8etara.

Areso

# Herritar asko bildu zen erreketaren urteurrenean

## Ilunabarrean, suak sinbolizatu zuen ekitaldia

JUANA Mª SAIZAR

Frantzesek Konbentzioko Gerran herrian egindako sarraskia gogoratu zen irailaren 10ean. Jende asko bildu zuen plazara. Horretarako prestatuak ziren bertsoak aditu ondotik, ilunpean eta eztada artean, jendea kandelekin ibili zen. Suaren inguruan eguzki dantza dantzatuz eman zitzaion bukaera ekitaldiari.



**Ekitaldiaren ondotik afaria izan zen trikitilari eta bertsolariekin.**

*ttipi-flash*

- **Ehiztariak** Usoa elkarteak 8 postu berri egin ditu eta iazko bi kendu. Enkante edo subasta 24ean izanen da eta 'sexta' urriaren 1ean.
- **Zubi berria** ari dira egiten herriaren sarreran zaharra bota ondotik. Donostiako Kurtsalekoaren parekoa izanen omen da.
- **Zubiaundita** parajean, zubia, erreka bazterreko paretak eta bideak berritzen ari dituzte.

Leitza

# Udalak irakasleen aldeko akordioa hartu zuen

## Denetara hamahiru dira egoera berdinean aurkitzen diren irakasleak, horietako 5 Leitzako eskolakoak

JOSEBA AZPIROZ

Irailaren 14ean, Batzar Berezi batean, Udalak ,kanporatutako hamahiru irakasleek aurkeztutako idatzia ikusirik, hauek jarritako Kasazio Errekurtsoak behin betirako Lege Sententzia ematen duen bitartean, Nafar Gobernuak, sinatutako akordioaren arabera, nolabaiteko irtenbidea eman dezala eskatzea erabaki zuen.

Zentzu honetan, aurreko alean oker jarria zegoen informazio bat zehaztu beharra dago. Hain zuzen ere, irakasle hauek oposaketa murriztuak eginak zituztela genion, eta hori, ez da horrela.

Bestalde, Juan Oronoz alkateak dioenez, *'irakasle hauek laguntza bilatzea'* egoki ikusten duen arren, *'ez du uste meritu berezirik dutenik beraiendako oposaketa murriztuak ateratzeko. Bestela, kontutan hartu beharko ziren ere egoera horretan edo makurrago dauden Leitzako beste langileak'.*



**"Baserritarren eguna"k iaz izan zuen arrakasta dela eta, aurten ere ospatuko da urriaren 16an. Hasiak dira dagoeneko bilerak egiten eguna antolatu eta ahalik eta partehartze handiena lortzeko.**

Artxibo argazkian, iazko perretxiko erakusketa

### Lapurretak haurtzaindegian

Abuztuaren 27-28ko astebukaeran lapurreta izan zen haurtzaindegian dagoen ezinduen tailerran. Falta diren gauzak ikusirik, umeen kontua dela errezelatzen da. Bostgarren aldia da leihotik sartu eta lapurretak egiten dituztela.

### Euskaltegian

matrikulatzeko epea irailaren 29a amaitzenda. Euskalduntzeko, alfabetatzeko edoEGA tituloa ateratzeko ikastaroak eskeintzen dira. Matrikula euskaltegian edo 610776ra deituz egin daiteke.

### Gripearen aurkako txertoa

Irailaren 19tik Urriaren 9ra eginen da Osasun Zentroan 12etatik 13etara. Txetaketa hau, 65urtez gorakoei eta propensoak direnei jarriko zaie. Areson 23an eta 5ean eginen da nahi izanez gero Leitzakoekin batera eginahal dute.

### ttipi-flash

**EPA ikastaroetarako** bilera, hilaren 23an, 4,30etan izanen da Lanbide Eskolan. Hau izanen da interesatua egonez gero izena emateko azken aukera

**Gose greban** dauden presoei elkartasuna adierazteko, Leitzako Amnistiaren Aldeko Batzordeak ekitaldi hauek antolatu ditu: hilak 21, asteazkena: Irratsaio berezia; hilak 22,osteguna: 8,30etan kotxe karabana plazatik aterako da; hilak 24, larunbata: 9etan, kazerolada plazan.

**Trasmisio kanpainaren** bilerak egingo dira gurasoekin. Semealabekin euskaraz behar bezala komunikatzearen garrantziaz arituko dira.



AKORDEOIAREN GOI-MAILAKO AKADEMIA

*Angel Manuel Belio*

AKORDEOIAK SALDU ETA ALKILATZEN DITUGU

DOMIÑENEA Etxea
San Andres karrika, 40 - NARBARTE
✆ 943 - 61 50 55

☎ 510526
LEITZA

VIDICOM PRODUKTORA

*Ezkontza argazkiak, bideoak, komunioak, urtebetetzeak, jaialdiak, kirolak, musikaldiak, ospakizunak, erreportai bereziak, bideoklipak, telefilmak...*
*Kalitatez eta merke eginak*
***Hona non duzun aukera !!!***

Baztan

# Gaztetxoenak emana diote hasiera ikasturte berriari

## Elizondoko Haurtzaindegiak ere irailaren 12an ideki zituen ateak

JOSEBA IGARABIDE

Gaztetxoenek emana diote hasiera ikasturte berriari. Aurtengoan Amaiurren 12 urteak arte geldituko dira eta. Lekarozen, aspaldiko partez, eskola jarriko dute. Dena den, LOGSEren aplikazioak zenbait aldaketa ekarriko ditu maila guzietan. Errate baterako Elizondoko Lanbide Eskola eta Lekarozko institutua bat egiteko bidean daude.

### Patxi Etxeberria hirugarren

Patxi Etxeberria hirugarren sailkatu zen Euskal Herriko Artzai Zakur Txapelketan. Patxik, lehendik ere bortz aldiz irabazia du txapelketa hau.

### Arraxka hil da

Aritzakungo Arraxkako Pedro Santesteban hil zen hilabete honen 8an.



**Baztango Udalak Euskara Teknikariaren lanpostua betetzeko deialdia atera berri du. Baldintzak irailaren 5eko Aldizkari Ofizialean daude eta interesatuek, urriaren 5a dute azken eguna apuntatzeko.**

### Amaiurko errebestak, asteburu honetan

Ortziralean hasita igandea bitarte errebestak ospatuko dituzte Amaiurren.

**Ortziralean**, suziriak eta herri afaria izanen da elkartean. Musika Iñazki taldeak paratuko du. **Larunbatean** goizez argi soinuak joko dira eta arratsaldean, Amaiurko I. Mendi Bizikleta bilgura antolatu da herrikoentzat. Gauez herri afaria Mendialden eta gaupasa Izadi taldearekin. **Igande** goizean, argi soinuekin ernatu ondotik futbol partidua jokatuko da ezkondu eta ezkongabeen artean. 2etan zikiro jatea izanen da Joxe Anjel akordeolaria, Lizaso eta Egaña bertsolariak eta Xalbador eta Ihidoi kantariekin. Arratsaldez eta gauez, errebestei bukaera emateko dantzaldia izanen da Iñazki taldearekin. Edozein gauza gertatauta ere besta batzordea ez da horretaz arduratuko.

*ttipi-flash*

### Harri zizelkatze ikastaroa

Cesareo Soulek harri zizelkatze ikastaro bat emanen du Baztango udalaren laguntzarekin. Gehienez ere 20 ikaslerendako izanen da eta urriaren 1ean hasiz, abenduaren 17an akituko da, Izena emateko deitu 58 12 79ra.

### Iruritako zabortegia

Juan Meokiri zabaldutako espedientea momentuz artxibatzea erabaki du Nafarroako Gobernuak. Dena den, ez du bertara txatar gehiagorik biltzen ahal izanen

### Ur azoak Lekarozen

Ur iturria agortzen ari ote den edo ixuriak dauden ikusteko, arratsaldez eta gauez ura moztua.

MIREN
ileapaindegia
ORDUA ESKA EZAZU
Miren Gortari Sein
© 592310
ORONOZ-MUGAIRI

Pierresenea
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
UDAZKEN eta NEGUKO MODA
KONJUNTOAK • JERTSEAK
...eta behar dituzun konplementu guziak
ESKULANETARAKO MATERIALAK

# Anizko bestak Arrosarioko Amabirjinaren ohoretan

## Basaburuako Herri Kiroleko neskak Nafarroako Txapeldun

PABLO MENDIBURU

Oraindik bestak baditugu inguru honetan. Urriko lau lehen egunetan Anizen ospatuko dira Arrosarioko Amabirjinaren ohorez.

Larunbata, 1 Bezpera eguna: 20,00 - altxafarua. 0,30-4,30-gau-pasa "Martin" taldearekin. Ondotik zinger-jatea. Igande, 3 AMABIRJIN ARROSARIOKOA: 11,00-Doneztebeko txistulariak. 12,00-Meza Nagusia. Ondotik otordua herrikoentzat. 18,00-Apustu mundiala basaburuko taldeko gazteen artean, 19,30-23,30- Dantzaldia "Ramontxo"rekin. Astelehena, 3 Haurren eguna: 10.00- Futbito. Zaharrak gazteen aurka. 11,30-Haurjokoak. 12,00-mus txapelketa. 17,00- Haur mailako pilota partiduak. Ondotik txokolatada9,00-23,00- "Joxe Angel"ekin dantzaldia. 23,00 Herri afaria etxeetan emandako gauzekin. Asteartea, 4:adiskidetasun eguna 10,00 Zaldi ibilaldia inguruetan zehar. 13,00 Mus txapelketako finala, 14,30 zikiro jatea. Ondotik bertsolariak, 19,00-23,00 "Joxe Angel"ekin dantzaldia. Ondotik zingerra kerrenian bestei bukaera emateko.



Umore ederrean ospatu zituzten herriko bestak Ziga aldean. Zikiro jatean ere animazio polita izan zen. Arg.: PABLO

### ttipi-flash

**Berroetan** batzarrea egin zuten hilaren 11an herriko "Santiago bideari" soluzioa bilatzeko, Belateko Obrekin bidea desagertzen delako.

**Zahorra** Lekarozko alkateak bi kamioi zahorra eskatu ditu Errandoneko bordako pistan zabaltzeko.

**Erlajazio ikastaroa** Ana Bareak,urritik urtarrilera eralajazio ikastaroa emanen du Arizkunenean.

**333 pzta orduko** Kostatuko da Oronoz Mugairiko eskola eta kontsultorioa garbitzea.

**Haurtzaindegia** irailaren 12an hasi zen. Haur bakoitzak 7-10.000pzta artean ordaindu beharko du.


KIWI BAZTAN, S. A.
FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN ZUZENEKO SALMENTA
MINDEGIA eta BULEGOAK: Sutegia Etxea 31795 LEKAROTZ
☎ (948) 58 11 01
Fax-a: (948) 58 11 01

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

FZ FOTO ZALDUA
ZURE EZKONTZARAKO
FOTO eta BIDEO Erreportai on bat
ELIZONDO ☎ 580491
DONEZTEBE ☎ 450364
MARKOEN TAILERRA eta zure karreteak ORDU BATEZ ERREBELATZEN ditugu "FUJI" kalitatearekin

ERRATZU OKINDEGIA
zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

ARLA ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak • freskagarriak
Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66 • ELIZONDO

SOULE
GURUTZE ETA HILARRIAK
✆ 453038 ARIZKUN
✆ 123572 IRUÑA

GAS ASKAITZ fontanería calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guztietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

ARMUA Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

Sara

# Michel Larzabal saratarrak irabazi zuen Kontrabandisten Laisterkaldia

## Ia 42 minutu behar izan zituen hogeitamabigarren edizioa betetzen zuen laisterketa bukatzeko

MIXEL ETA JACQUELINE



Moxok 1991ko garaipena errepikatu du aurten

Michel Larzabal "Moxo" izan da aurten hogeitamabigarren edizioa betetzen zuen Kontrabandisten Laisterkaldiaren irabazlea. Saratar hunek laisterkaldia 41 minuta eta 53 segundutan burutu zuen. 'Moxo' 1991. urtean jadanik irabazle atera zen.

Aurten, Aizpiolea izan da bigarrena, Juan Manuel Irazoki beratarra (1992ko irabazlea) hirugarrena eta laugarren postua ere beratar batek eskuratu du, Patxi Pikabeak, hain zuzen (hau iazko irabazlea da).

Lehenaz aparte, lehendabiziko saratarra Pepe Iramuno izan da. Azken sailkatuak berriz, oren bat eta 32 minuta eman ditu korrikaldia egiten eta denbora hunen lortzeko jada ongi trebatua behar du.

Laisterkaldi hau egiten denez geroztikako markarik hoberena 40 minuta eta 26 segundutakoa da, Koxe Oronoz saratarrak 1988an erdietsia.

### Bestak umore onean joan dira

Jendeketarik haundiena lehen egunean izan ginuen, larunbata izaki. Bertze egunetan ere giro herrikoi polit bat bizi izan dugu, kirolak, musika, eta dantzak uztarturik.

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

LANCHAS
• Parketak - Tarimak
• Kutxillatzea eta bernizatzeak
• Estaldura orokorrak
BERA ✆ 630735 • IRUN ✆ (943) 622305



KOXKONTA



Ezkontza, bataio eta bileretarako leku egokia
Deitu erreserbak egiteko
Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA

ESTHER ATEAK, C.B.
Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN
➠ Parket flotantea
➠ Tarima
➠ Kortxoa
➠ Ate korrederoak dituzten armarioak
➠ Paretan sartzeko armarioak

Urdazubi

# Urdazubi eta Zugarramurdin 58 haurrek hasi dute ikasturtea

## Horietatik hemeretzik euskaraz ikasiko dituzte eskolako ikasgai guztiak

ALIZIA OLAIZOLA

Udako oporrak pasatu direnez, irailaren 12an eman zioten hasiera 1994-95 ikasturte berriari Urdazubi eta Zugarramurdiko 58 haurrek.

Berrogeithemezortzi ikasle hauetatik bakarrik hemeretzi ari dira euskal adarrean.

Hasierako egun hauetan, klaseak goizez bakarrik izanen dituzte eta 26tik aitzinat goizez eta arratsaldez hasiko dira.

Hiru urtetik goitiko haur guztiak eskolaratuko dira, eta aurtengoan, bortz dira adin horretakoak. Iaz bezala zazpi irakasle dituzte eta aurten bertze bat gehituko zaie musika klaseak emateko.



**Hiru urtetik gorako haur guziak eskolatu dira.**

Argazkia: Alizia

### ttipi-flash

**Jubilatuak bisitan**
Arkupeak Jubilatu Elkartekoak alderdi hauek bisitatzen egon ziren buruilaren 6an. Bazkaltzeko, Armua eta Ikaburura bildu ziren eta ondotik dantzaldia izan zuten.

**Iratze eta ihizi sasoina**
Sasoin honetan beti gertatzen den bezalaxe, nekazariak furi-furian ari dira iratzeak egiten eta ihizirako prestatzen.

Zugarramurdi

# Bentetako aldean basurdeak agertu dira

## Gaita eta atabala jotzen ikasi nahi dutenek, bertzalde, oraintxe dute aukera

KORO ETA MARGARI

Basurde ihizirako sasoina edeki dela eta, arras nahasia dabilkigu herria. Jakin dugunez, berriz ere hasi dira Bentetako aldean basurdeak agertzen. Errate baterako, Oierikobordako Patxikuri bat agertu zitzaion eta Bixkarreko Ramontxori bertze bat, Azken hau, gainera, umeekin omen zegoen eta jokatu egin zitzaion Ramontxori.



**Gaita eta atabala jotzen ikasteko asmoarekin daude herriko gazte batzuk. Taldea juntatzen bada Baigorriko gaiteroek hitza emana dute erakustera etortzeko. Beraz, interesatuta dagoenak Elenari izena eman.**

### ttipi-flash

**Sortze bat**
Herri huntan berri on bat baldin bada, hori haur bat sortzea da. Lehengo egunean Agurtzanek 'bere lana' ongi bete zuen Joanes ttikia mundura ekarriz. Zorionak biei.

**Urdazuri bazterrak ETBn**
Irailaren 13an ETBkoak izan zaizkigu filmazio ttiki bat egiteko. Afera, Urdazuri ibaia zeharkatzen duten herriei buruz programa bat egitea zen. 'Euskaldunak' izeneko saioan botako omen dute ETBren bi kateetan.

## EZKONTZAK

**Fco. Jabier Oskoz** eta **Mª Isabel Ormart**, Almandoz eta Gartzaingoa, abuztuaren 27an.

**Angel Goñi Mitxelena** eta **Begoña Mendiberri Salaburu**, Elizondo eta Gartzaingoa, irailaren 9an.

**Jose Luis Zandio Etxaide** eta **Itziar Pagola Elizalde**, Iruñea eta Berakoa, abuztuaren 27an.

**Joakin Elizalde Arretxea** eta **Amaia Huartemendia Sanjurjo**, Berakoak, irailaren 3an.

**Juan Antonio Prieto Irazoki** eta **Mª Carmen Etxegarai Mikelperizena**, Berakoak, irailaren 4ean,.

**Carlos Irigoien Ubiria** eta **Argitxo Razkin Calvo**, Igantzi eta Iruñekoa, abuztuaren 20an.

Mertxe Gonzalez **eta** Paulino Oteiza**, Arantza eta Gaztelukoa, irailaren 10ean.**

Juan Luis Apeztegia **eta** Ainhoa Etxebeste**, Sunbillakoak, uztailaren 24ean.**

Antonio Espelosin **eta** Txaro Goizueta**, Sunbilla eta Aurtizkoa, abuztuaren 6an.**

Garbiñe Gaztelumendi **eta Severiano**, Sunbilla eta Iruñekoa, irailaren 17an.

## JAIOTZAK

**Kepa Txoperena Konde**, Igantzikoa, abuztuaren 12an.

**Jonathan Iriarte Lopez**, Arizkungoa, abuztuaren 20an.

**Amaia Iturriria Barrenetxe**, Azpilkuetakoa, abuztuaren 29an.

**Joanes Andueza Villanueva**, Zugarramurdin, irailaren 8an.

## HERIOTZAK

**Bizente Sein Bergara**, Igantzikoa, abuztuaren 5ean, 88 urte.

**Alfonso Etxeberria Telletxea**, Igantzikoa, abuztuaren 13an, 82 urte.

**Marie Delpech Lasaga**, Sarakoa, uztailaren 23an, 80 urte.

**Michel Duhalde**, Sarakoa, abuztuaren 14ean, 44 urte.

**Joséphine Suhit-Aniotzbehere**, Sarakoa, abuztuaren 15ean, 95 urte.

**Mattin Ichuribehere**, Sarakoa, abuztuaren 16an, 73 urte.

**Incomes Ibarburu**, Sarakoa, abuztuaren 25ean, 79 urte.

**Oihana Belis Iratzoki**, Sarakoa, abuztuaren 25ean, 19 urte.

**Mª Jesus Arburua Irigoien**, Etxalarkoa, abuztuaren 28an, 58 urte.

**Juliana Ugarte Gortari**, Oronozkoa, irailaren 9an, 78 urte.

**Fernando Cuenca Canovas**, Murtziakoa, irailaren 10ean, 74 urte.

**Maria Macaya Rodriguez**, Elizondon, irailaren 10ean, 70 urte.

**Pedro Santesteban Arraztoa**, Arizkungoa, irailaren 8an, 60 urte.

**Elena Montes Parada**, Beran, irailaren 1ean, 87 urte.

**Jose Ibarburu Etxegarai**, Beran, irailaren 3an, 77 urte.

**Sebastiana Bergara Urtxegi**, Igantzin, irailaren 12an, 86 urte.


**40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA**

**13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat, 2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat, 4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat, 2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat, dekorazio denda bat, supermerkatu bat, aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat, bidai agentzia bat, PVCko nahiz zurezko leiho eta ateak, hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...**

Denetarik gauzarik hoberenak.
Irun erdi-erdian. Parkina eta guzi.

Centro Comercial
LUIS MARIANO
Irun

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**SOS Nafarroa eta Urgentziak**.. .088/061
**Osasun Zentruak**
Elizondo ... 452367 / 580235
Doneztebe ... 450300
Lesaka ... 637428 / 637336
Leitza ... 510248 / 510573
**Nafarroako Ospitaleak**
Nafarroako ospitalea ... 102100
SSko urgentzi zerbitzua ... 246750
Virgen del Camino erresidentzia ... 109400
Gurutze Gorria ... 226404
**Gipuzkoako Ospitaleak**
Irungo ospitalea ... 614600
Gipuzkoako ospitala ... 460299
Erresidentzia ... 453800
**Anbulatorioak**
Irun ... 630264/621106
**Anbulantziak**
Oitz ... 450242/450342
**DYA**
Lesaka (larrialdiak)... (943) 464622
Doneztebe (larrialdiak)... 171717
**FUNERARIA**
Doneztebe ... 637404
Elizondo ... 580924
Lesaka ... 637404
**Suhiltzaileak**
Oronotz-Mugaire ... 592255
**Garraioak**
Bidasotarra ... 631150
Baztanesa ... 580129
Leitzaran ... 515018
**Aberiak:**
Iberduero ... 450335/450336

## Osasunbidea euskalduntzea luzerako kontua

Ondoko laukian ikusten ahal den bezala hauek dira, euskara beharrezkoa izanen duten lan postuak Osasunbidean, berriki Nafarroako Gobernuak erabaki duen arabera. **A** hizkiz agertzen diren lanpostuetan euskara idatzia nahiz mitzatua dakitela frogatu beharko dute langileek. **B** hizkiz agertzen direnetan, berriz, euskara meritu bezala kontsideratua izanen dute. Guzti honek etorkizunean aterako diren lanpostu deialdiei egiten dio erreferentzia.

**EUSKARAZ JAKITEA BEHARREZKOA DUTEN LANPOSTUAK**

| | | Mediku eta Pediatrak | ATS | Fisio. | Gizarte Lagunt. | Admin. | Denetara |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **ELIZONDO** | A* | 4 | 4 | 1 | - | 2 | 11 |
| | B* | 3 | 3 | - | - | - | 6 |
| | Denetara | 7 | 7 | 1 | - | 2 | 17 |
| **LEITZA** | A* | 2 | 2 | - | - | 1 | 5 |
| | B* | 1 | 1 | - | - | - | 2 |
| | Denetara | 3 | 3 | - | - | 1 | 7 |
| **LESAKA** | A* | 4 | 4 | - | 1 | 3 | 12 |
| | B* | 3 | 2 | - | - | - | 5 |
| | Denetara | 7 | 6 | - | 1 | 3 | 17 |
| **DONEZTEBE** | A* | 3 | 3 | - | 1 | 2 | 9 |
| | B* | 2 | 2 | - | - | - | 4 |
| | Denetara | 5 | 5 | - | 1 | 2 | 13 |




**Hainbat ekitaldi burutuko dira Bera, Lesaka, Ituren eta Leitzan gose greban dauden presoekin elkartasuna adierazteko . Ekitalde hauek Irailaren 18an hasi eta 24ra bitarte iraungo dute.**

Zati honek **3.000 Pta.** balio ditu

**ttipi-ttapa**
✆ 63 11 88

Olatz
Relojería Joyería

GARAI ZAILETARA EGOKITUTAKO PREZIOAK
Bisita gaitzazu eta ikusiko duzu.

Larunbatetan goiz-arratsaldez irekia
SAN PEDRO, 3 - Hondarribia
☎ (943) 64 56 78

AYLA
ARGAZKI DENDA
Bixente Taberna
• EZKONTZA ERREPORTAIAK
Argazkia eta Bideoa
Legia 4 • ✆ 630597
BERA

# AGENDA EGUNEZ EGUN

**MENDI BIZIKLETA**

**SUNBILLA**

**Irailaren 25an** Izen ematea Ulibeltzak Elkartean goizeko 10,30ak baino lehen.

**IKASTAROAK**

**ELIZONDO**

**Larunbatero** 4etatik 8tara harri lan ikastaroa Cesaroa Soulek emana. Urriaren 1etik Abenduaren 17ra.

Izenematea Arizkunenean 58 12 79.

**GUARDIAKO BOTIKAK**

**Irailaren 19tik 25era** Bera, Ituren, Irurita, Urdazubi eta Goizueta.

**Irailaren 26tik urriaren 2ra** Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

**Urriaren 3tik 9ra** Etxalar, Doneztebe, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

# AGENDA PRAKTIKOA

## ERREZETA



### *Bakailu buñueloak*



Agustin GARCIA
Kattu Jatetxea
•Lesaka•

**Osagaiak**

*• 250gr. bakailu• 500gr. patata• 2 arraultze • 2 baratxuri • 100gr. irin • gatza • pipermina• perrexila • intxaur moskada • olioa•*

**Prestatzeko manera**

Bakailua beratzen eta gezatzen 24 orduz utzi.

Ontzi batean patata puskatuak egosten jarri. Egosi denean, patatak ongi xukatu eta labean sartu pixkat idortzen, ondoren bertze ontzi batean pure bat egin.

Purearen gainean bakailua ongi xehetua eta hezurrik ez dagoela zihurtatu eta gero patatari nahasi, ondoren arraultze gorringoak, perrexila eta baratxuriak fin-fin pikatuak, irina, gatza eta intxaur moskatua. Osagai guztiak ongi nahasi eta utzi egiteko momenturarte.

Frejitzeko momentuan xuringoa elur puntuan erantsi lehen egin dugun masari, kroketa moduko bolak egin, eta olio beroan frejitu, doratu direnean atera eta serbitu.

## BASERRIA



**❖ ZERRIKIA ❖**

•**Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.400 pzta.
•**Zerri gizena** (95-100): 165 pzta/kilo
• **Zerramak:** 110 pzta./kilo bizirik.



**❖ BEHIKIA ❖**

•**Aretze gizenak:**
**Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal
Extra ............................590
1.koa ............................570
2.koa......................... ...550

**Urruxak:** Pzta/Kg. Kanal
Extra ............................600
1.koa ............................560
2.koa ............................540

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•**Aretze ttikiak**
(15 egun ingurukoak):
**Nabarrak:** urruxak 23.000 eta idixkoak 33.000 Pzta.
**Mestizoak:** urruxak 40.000 eta idixkoak 50.000 pzta.

•**Behi zaharrak:**
Behi nabar gizena: 420 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 480 Pzta /Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: **EHNE, ZUBIRIA MINDEGIAK, KIWI BAZTAN...**



**❖ FRUTONDOAK ❖**

Hiru urteko landare bakoitza
• **Bertako sagarrondoa** 930.
• **Udareondoa** 930 pta.
• **Gereziondoa** 1.050 pta.



**❖ BARAZKIAK ❖**

• **Piper txorizero** zientoa 800.
• **Piper morro** zientoa 800.
• **Piperminak** zientoa 600.
• **Valentziar tipula** zient. 250.
• **Letxuga** zientoa 400 pta.
• **Azelga** zientoa 400 pta.
• **Pepino** sorta 25 pta.


ETXANDI TXOKO
erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
Tfnoa: 45 04 91





KATTU
OSTATUA
JATETXEA
- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA

## LIBURU ERRESEINAK




**Espainolak eta Euskaldunak**
Joxe Azurmendi
Elkar, 588 or.

Espainolak intoleranteak izan dira, eta euskaldunak tontoak, euskaldunek inperioan parte hartu nahi izan dugu baina horretarako etxea utzi dugu, nagusi handiaren morroi txiki bihurtuz. Ondorioz gaurko Euskalerrian, euskaldunen kontrako irain eta insultubilketa bat egiten da, eta euskaldunok ditugun mito horiek euskaldunenak baino espainolenak izan direla erraten da. Errenazimenduan sorturikoak, Euskal Herria ulertzeko garai horretara jo behar dela dio autoreak. Eta euskaldunari bere buruari begiratzea besterik ez zaiola gelditzen bere buruarekin pozik bizitzen jakiteko. Euskaraz idatzita egon arren, interesgarria litzateke hemengo erdaldunek berri izatea

**Liburuok eskuratzeko Bera, Doneztebe, Elizondo, Leitza eta Lesakako liburutegietara joaten ahal zarete.**

### *Azken nobedadeak*

**Kutsidazu bidea, Ixabel**
Joxean Sagaztizabal
Irun, Alberdania 1994

**Auto-stopeko ipunak**
Pako Aristi
Donostia, Erein 1994

**Bakean utzi arte**
Itxaro Borda
Lasarte-Oria, Susa 1994

**Pippi Kaltzaluze**
Astrid Lindgren
Donostia, Elkar1994

**Aitatxo bilinbolon**
Gianni Rodari
Donostia, Erein 1994

**Erregeak zergatik ote dira erege?**
Gianni Rodari
Donostia, Erein 1994

**Rosaliaren arkatza**
Anton Cortizas
Arrigorriaga, Bizkaia SM 1994




**Sudur puntuan mundua**
Juan Garzia Garmendia
Alberdania, 60 or.

Tolosako Udalak antolatutako 1994.ko Antonio Maria Labaien 1. Narrazio Laburren Sariketa irabazi zuen Juan Garzia Garmendiak haur eta gazte literatura mailan idatzi duen lehen lan honekin.
Haurtzaroan "akats" fisiko ttikiak zirenek, Mirentxu gaztea ez dute ongi ikusten uzten. Betaurrekoak deituriko irtenbidea ikuspen txarra eta irudi tristeen kontra sendagarri harrigarria izanen da, mundua sudur puntan bait dago.



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km
Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mobleak
- Estiloko mobleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak

## AGENDA EGUNEZ EGUN

### BESTAK

**IGANTZI**

**Irailaren 28tik Urriak 2ra.** San Migelen ohoretan.

**URROTZ**

**Irailaren 29an.** San Migelen ohoretan.

**ANIZ**

**Irailaren 1etik 4ra.** Xehetasunak23. orrialdean.

### BERTSOLARIAK

**SUNBILLA**

**Irailaren 25ean** Arratsaldeko 7,30etan, Peñagarikano, Sarasua, Sorozabal, Murua, Mendizabal,Elizagoien

### ERAKUSKETAK

**ELIZONDO**

**Irailaren 3tik 29ra** Koldo Sebastian margolariaren oleo erakusketa Arizkunenea Kultur Etxean. Lanegunetan arratsaldeko 7etatik 9etara eta jai egunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

### TAILERRAK

**ELIZONDO**

**Larunbatero** urriaren 15a bitarte, bideo tailerra, 4,30etatik 7,30etara (guztira 28 ordu). Arizkunenea Kultur Etxean.

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 ©ra

## ETXEBIZITZAK

**SALDIAS.** Borda eta lau soro salgai (borda bakarrik edo borda eta soroak). Ura hurbilean dauka. ☎ 510484.

**Etxe edo baserri** txiki bat alkilatuko nuke. ☎ 451746 (Paula-bulego orduetan).

**LESAKA.** Bittiria karrikan 80 m² inguruko lokala salgai. ☎ 637404.

**LESAKA.** 120 m²ko lokala alokatuko nuke. ☎ 637404.

## DENETARIK

**Neska** bat behar dugu pisua osatzeko Gasteizen datorren ikasturtean. ☎ 450818.

**Neska** bat behar dugu pisua osatzeko Iruñean datorren ikasturtean. ☎ 450818.

**Eskopeta** AC salgai. PR modeloa, 12 kalibrekoa eta bi kainoi paraleloan. ☎ 627618.

**Barra** bat alokatu nahi baduzu, deitu ☎ 450277ra 9etatik 12ak arte. Edorta.

**Tama** markako kaja (tanborra) salgai 13.000 ptatan. Txaranga edo fanfarre batetan jotzeko aproposa. ☎ 630637 (Mikel) gaueko 9etatik aurrera.

**Irristailu** edo patinak salgai. Berriak, 37 zenbakikoak. Oso merke. ☎ 514175 (1etatik 2etara).

**Lesakako** ardotegia salgai. ☎ 637453.

**Ikasle** bat behar da Iruñean pisua osatzeko. ☎ 637985-637895.

**Bi neska** behar dira Burlatan pisu bat alokatzeko. Irailatik aurrera. Ekonomikoa. ☎ 453174.

**Iruñean** Barañainen pisua osatzeko beste neska edo lagun bat behar dugu. ☎ 510203-510008.

**Kiwi plantazioa** alokatuko nuke Igantziko Bentako Gainkola baserrian. Orain 5 urte landatutakoa eta hektarea t'erdiko zabalera du. ☎ 637397 edo (943) 279983.

**Sei gimnasia mahai** motordunak salgai, jubilatu etxetarako espezialak. Prezioa: 1.250.000 pzta negoziagarriak. ☎ 637011 (Mª Angeles - Mª Ixabel)

**Erremolke** txiki bat salgai. ☎ 610762.

**Sukalde** kalefaktora salgai, Lakuntza markakoa. ☎ 637883.

**Kargarako** erremolke ttikia eta camping denda familiarra salgai, dena batera. Prezioa: 85.000 pzta. ☎ 634126.

**Leitzako** 3 ikaslek pisu bat Iruñean konpletatzeko mutil bat behar dute. ☎ 510339.

**120 bajutako** akordeoia salgai. ☎ 637805.

**Megadriveko** 'Golden Axe 2' jokoa salgai, 3.500 pezetatan. Egoera onean. ☎ 510381 (8,30-9,30). Egoi.

**Oitzen** belagiak salgai. ☎ 450177

**Trikitixa** bat erosiko nuke. ☎ 610812.

## AZIENDAK

**Ahari** bat salgai. Hiru urtekoa eta mutur horia. ☎ 610638.

**Husky** Siberiarra salgai. Emea da eta bi hilabete ditu. ☎ 630467 (Tobi)

**Mando** bat salgai. ☎ 615016.

**Ardi zakurkumeak** oparituko nituzke. ☎ 630766.

**Txakurkumeak** salgai (4 hilabetekoak), pointer arrazakoak, aita eta ama ehizturi onak. Bakoitzak 20.000 pzta. ☎ 450919.

**'Pastor**Aleman' arrazako zakur bat erregalatuko nuke. 10 hilabetekoa da. ☎ 510500.

## LANA

**Kartelak**, Bisita Txartelak, Talonarioak... egiten ditugu. Merke eta azkar. ☎ 631188 (bulego ordutan).

**Adiministrari** lanak eginen nituzke. FP-II ikasia dut. ☎ 610625 (Itziar).

## IBILGAILUAK

**Mobilette GAC** gorrixta salgai. Motor berri berria. ☎ 450575 (Eguerdi eta arratsez).

**Trail motoa** salgai Arantzan, Honda 125 NTX egoera onean, NA-X matrikula. ☎ 634106 (Xabi).

## AGURRAK

**Doneztebeko** Alfredo Telletxeari: oso mutiko jatorra zara. Ea ikusten garen Elizondon. Muxu bat. M.A.

**Berako** Jone Arrietari: Donostiko mutil baten partez, oso ona zaude.

**Juan Carlos** Orbegozo, Elsokoa eta Mª Jose Korteari, Zigakoa zorionak zuen ezkontza egunean, urriak 1. Besta ederra eginen dugu. Triputxin.


**ZALAIN MOTOR**

MEKANIKA • KARROZERIA • ELEKTRIZITATEA • GRUA

© eta Faxa 63 11 57 • Telefono mugikorra (908) 77 80 23

• BERA •

**Aukerako Autoak**


Ford Sierra 2. Oi / NA-T

| | |
|---|---|
| Opel Kadett 1.6S | SS-Z |
| Ford Orion 1.3 | SS-T |
| Ford Fiesta 1.1 | NA-V |
| Volkswagen Polo | NA-P |
| Peugeot 250 GTX | SS-Z |
| Renault 5 Turbo | SS-W |
| Ford Orion 1.6D | SS-AH |
| Ford Escort 1.6D | SS-U |
| Ford Orion 1.6D | SS-U |
| Ford Orion 1.6D Ghia | SS-V |
| Ford escort 1.8D | NA-AB |


Opel Corsa 1.5D / NA-V / 70.000km

**Aukera zabala Diesel Merkeetan**
**Auto errebisatuak eta garantia osokoak**


8,5 %
T.A.E.
3 URTETARAKO GARANTIZATUTA
CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA


EUSKARAREN KATEAN JARRAITU
BORTZIRIETAKO
EUSKARA ZERBITZUA
Tfnoa: 63 41 25
MALERREKAKO
EUSKARA ZERBITZUA
Tfnoa: 45 17 46




# EUSKARA IKASTAROAK

EZ UTZI
GERORAKO
HASI AURTEN!!

ika

**MAILA GUZIAK**

Euskalduntze - EGA - Sakontze - Alfabetatze

**MATRIKULATZEKO EPEA**

Irailaren 5etik 28ra

BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA • ✆ 637796/631105

MALERREKAKO EUSKALTEGIA • ✆ 451555

LEITZAKO EUSKALTEGIA • ✆ 610776

GOIZUETAKO EUSKALTEGIA • UDALETXEAN